

Galdera

Informatikan asko hitz egiten da ataka fisikoei buruz. Gaztelaniazko *puerto USB*, «USB ataka» da euskaraz. Bestalde, sareetan oso elementu garrantzitsua dugu ataka logikoa; ataka hori IP helbide bati (192.168.0.1) lotuta egon ohi da, eta 1etik 65535rainoko zenbaki bat da; oso zenbaki ezaguna bada, izen jakin bat eman ahal zaio identifikatzeko (80:http, 443:https, esaterako). Kontua da nik beti erabili dudala 'ataka' hitza, baina ez dago onartuta Euskaltermen; eta hainbatek 'portu' hitza erabiltzen dute. Beraz, *port* logiko hauei erreferentzia egiteko, 'ataka' edo 'portua'?

Erantzuna

'Ataka' hitza da termino estandarizatua, gure iritzian.

Ohiko hiztegiek ez dituzte beti termino guztiak jasotzen, bereziki hitz teknikoak badira, ezta hiztegi espezializatuek ere. Batzuetan adiera bat baizik ez dakarte, edo batzuk, baina ez guztiak. Beraz, ez da harrizkoa 'ataka fisikoa' agertzea eta 'ataka logikoa' edo 'sare-ataka' kontzeptua ez agertzea. Euskalterm terminologia-banku publikoak sarrera hori ez jasotzeak ez du esan nahi onartzen ez duenik, oraindik ez duela gehitu baizik. Hiztezigintza etenik gabeko jarduera da. Egunero sartzen dira sarrera edo adiera berriak.

Finkatutzat jo daiteke, gure ustez, 'ataka' terminoa. Dena dela, egia da oraindik ere 'portu', 'atari' eta horrelakoak agertzen direla inoiz sarean; baina erreferentziazko erabiltzaile, erakunde edo webguneetara joz gero, eredu egonkorrak daude. Ikus dezagun lagin bat.

1/ Ehuskaratuak EHUko Euskara Zerbitzuaren kontsulta-gunean:

Cicileo, G. eta beste: *IPv6 para todos* (2009). Itzultzailea: **Elhuyar Fundazioa**, Iza, I.: *Ipv6 nonahi baliatzeko gidaliburua* (2011) ◇ Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua ◇ Gainbegirale teknikoa: Huarte, M. ◇ Hizkuntza-gainbegiralea: Igerabide, J.K.:

Teredo zerbitzariak Teredo bezeroaren eskariak jasotzen ditu UDP14 protokoloko 3544 **atakan**, eta IPv6 helbide bat bidaltzen dio bezeroari, bere helburura iristeko erabil dezan.

Un servidor Teredo escucha las peticiones de un Cliente Teredo en el puerto 3544 de UDP14 y le devuelve una dirección IPv6 para que éste la utilice y llegue a su destino.

Beste ekipo batekin komunikatzeko erabiltzen den aplikazio ezagun bat da Telnet; komando-interfaze baten bidez eta Telnet protokoloa eta TCP 23 **ataka** erabiliz egiten du komunikazioa.

Telnet es una aplicación muy conocida para comunicarse con otro equipo por medio de una interface de comandos usando el protocolo TELNET y el puerto TCP 23.

Beste ekipo batekin komunikatzeko aukera ematen du SSHk; komando-interfaze baten bidez eta enkriptatzea darabilen kanal seguru bat eta TCP 22 **ataka** erabiliz egiten du komunikazioa.

SSH permite la comunicación con otro equipo por medio de una interface de comandos pero usando un canal seguro con encriptación y el puerto TCP 22.

FTP protokoloak, normalean 20 eta 21 **atakak** erabiltzen ditu.

FTP generalmente usa los puertos 20 y 21.

Normalean, protokolo hauek erabiltzen dira: mezu elektronikoak bidaltzeko, SMTP (25 **ataka**); mezu elektronikoak jasotzeko, POP3 (110 **ataka**) edo IMAP4 (143 **ataka**).

Generalmente se usan los protocolos SMTP (puerto 25) para enviar los mensajes de correo, y POP3 (puerto 110) o IMAP4 (puerto 143) para obtener los mensajes.

• Zerbitzariaren izena: streaming.adibidea.com:8100 (8100 **atakako** streaming-zerbitzaria da hori, balitekeelako 80 **ataka** web-zerbitzari batek hartua izatea).

• *Nombre del servidor: streaming.ejemplo.com:8100 (este es el servidor de streaming en el puerto 8100 ya que es posible que el puerto 80 este ocupado por un servidor de Web)*

Web-nabigazioak HTTP protokoloa erabiltzen du hipertestuen, web-orrien eta HTML orrien transferentzia egiteko; eta web-nabigaziorako, normalean, 80 ataka erabiltzen da.	<i>La navegación web utiliza el protocolo HTTP para transferir hipertextos, páginas web o páginas HTML, y para la navegación web generalmente se usa el puerto 80.</i>
Listen aginduak kontrolatzen ditu Web-zerbitzariak entzuteko erabiltzen dituen IPak eta atakak , eta httpd.conf konfigurazio-fitxategi nagusian aurkitzen da.	<i>La directiva que controla las IPs y puertos por los que escucha el servidor web es Listen y se encuentra en el fichero de configuración principal httpd.conf.</i>
Lehenespenez, zerbitzariak IP guztien bidez eta 80 atakaren bidez (http) entzuten du:	<i>Por defecto escucha por todas las IPs y el puerto 80 (http):</i>
Zerbitzariak 80 atakan IPv6-ren bidez entzuten duela egiaztatzeko, netstat komandoa erabili daiteke, honela:	<i>Para comprobar que está escuchando por IPv6 el servidor en el puerto 80 se puede utilizar el comando netstat:</i>
Horrek adierazten du 80 atakatik (:80) zerbitzariaren edozein helbidean (::) entzuten (LISTEN) ari dela (izan IPv4, izan IPv6).	<i>Lo que indica que está escuchando (LISTEN) en cualquier dirección (::) del servidor, ya sea IPv4 o IPv6, por el puerto 80 (:80).</i>
80 atakatik (http) IPv6 bidez entzuten dela egiaztatzeko, honela:	<i>Podemos comprobar que se está escuchando por el puerto 80 (http) sobre IPv6:</i>
Hala, 80 atakatik eta IPv4 eta IPv6 helbide guztien bidez entzuten da.	<i>De esta forma se escucha por el puerto 80 y por todas las direcciones IPv4 e IPv6.</i>
Zerbitzaria DNS atakan (53 atakan) IPv6 eta IPv4 helbideetan entzuten ari dela ikusi daiteke:	<i>Se puede ver como el servidor está escuchando en las direcciones IPv6 e IPv4 en el puerto del DNS (puerto 53):</i>
DNS zerbitzariak (53 ataka) IPv6-ren bidez entzuten duela egiaztatzeko, netstat komandoa erabili daiteke, honela:	<i>Para comprobar que el servidor DNS (puerto 53) está escuchando por IPv6 se puede utilizar el comando netstat:</i>
Dena den, konmutadoreei dagokienez, zenbait ezaugarri onartzea komeni da. Adibidez, MLD snooping ezaugarria, multicast trafikoa zein atakatar a bidali ebatzen duena ataketara konektatutako gailuak zer multicast talderen harpidedun diren oinarri hartuta.	<i>Sin embargo, en el caso de los conmutadores, es conveniente que puedan soportar características como “MLD snooping”, que permite determinar a qué puertos enviar el tráfico multicast en función de los grupos multicast a los cuales se han suscripto dispositivos conectados a esos puertos.</i>
Zure hornitzaileak IPv6 zerbitzurik ez badu, ez baditu IPv4 eta IPv6 zerbitzuak ataka berean eman nahi, edo ezin badu hori egin, tunel bat erabili beharko duzu.	<i>En caso de que su proveedor no disponga de servicio IPv6 o que no pueda/quiera incluir servicio IPv4 e IPv6 sobre el mismo puerto, tendrán que utilizar un túnel.</i>

2/ Elhuyar Fundazioaren zientzia.eus atarian, [Sare-barneko marinela ala pirata](#):

... «Lehen urratsa sartu nahi den ordenagailuari buruzko ahalik eta informazio gehien lortzea da. Horretarako, lehenik ataketara jotzen da, sartzeko balizko bideak arakatzera. Lortu eta gero, **ataka** bakoitzera sartzen dira erabilitako protokoloaren bertsioa zein den jakiteko, horietako askok sarbidea erraz dezaketen programazio-akatsak baitituzte. Akats horiei esker, passwd edo shadow fitxategiak gehienetan zerbitzarira sartu gabe lor daitezke».

3/ Elhuyar Hiztegia, [ataka](#): 4 s.m. (Inform.) [ataka](#)

4/ Zehazki hiztegian, [ataka](#): 3 INFORM [ataka](#).

5/ Librezeale, euskara informatikaren munduan bultzatzea helburu duen lantalde irekian, [Estilo-liburuko glosarioa](#):

```
...
msgctxt "http://IP-helbidea:ataka"
msgid "port"
msgstr "ataka"
```

6/ Wikipedian, [Ataka \(informatika\)](#):

... Sare atakak edo ataka logikoak

Sakontzeko, irakurri: «[Sare ataka](#)»

Konputagailu komunikazioetan zerbitzu ezberdinak antolatzeko zenbakiak izendatzen dituzten memoria atalak dira sare atakak.

Sare ataken laburpena

Izena	Ataka/protokolo	Azalpena
FTP	21/ TCP	File Transfer Control
telnet	23/ TCP	Telnet
SMTP	25/ TCP	Simple Mail Transfer Protocol
Domain	53/ TCP/UDP	Domain Name Server
www-http	80/ TCP	World Wide Web HTTP
POP3	110/ TCP	Post Office Protocol – Version 3
NNTP	119/ TCP	Network News Transfer Protocol
netbios-ssn	139/ TCP/UDP	NETBIOS Session Service

...

7/ Wikipedian, [Sare-ataka](#):

... «Atakaren zenbakia 16 bitekoa denez, $2^{16}=65.536$ ataka posible ditugu. Sare zerbitzuak ematen dituzten makinetan ([Telnet](#), [FTP](#), [HTTP](#),...), [TCP/IP](#) zerbitzu ezagunentzat ataka zenbaki batzuk gordetzen dira».

8/ Wikipedian, [Bideratzaile](#):

... «gero [datu paketeak](#) sare-segmentu eta sare ataka egokienetatik zuzentzeko».

9/ Wikipedian, [Suebakia \(informatika\)](#):

... «Iragazkidun [Routerrak](#) erabiltzen dira eta arauetan oinarritutako sarrera kontrol politikak. [Routerrak](#) paketeak iragazi egiten ditu honako irizpideak jarraituz: erabilitako protokoloak, jatorri eta helburuko IP helbideak eta TCP-UDP atakak, jatorrikoa eta helburukoa.


10/ Ubuntuolog.com Linux sistema eragileari buruzko atarian, [Zerbitzatu-partekatu sare lokala](#):

... «Beraz, ziurtatu 5000 ataka erabilgarri dagoela. Edozein arrazoiengatik blokeatuta badago, edukia erabil dezakegu beste ataka bat -p aukera erabiliz».

```
lapoclay@entreunosyceros-satellite1804:~$ serve -p 1234 Documentos
...
  Serving!
  - Local:           http://localhost:1234
  - On Your Network: http://10.0.2.15:1234
  Copied local address to clipboard!
```

11/ [Atakak birbideratzea, KONFIGURAZIO-ESKULIBURUA, Thomson TCW770](#) (PDF):

- 7.- Baldin eta aurrez badakigu zer ataka ireki nahi d(it)ugun, eman 5. pausoa, eta bete beheko ataleko parametroak. *(7. irud.)*
- 8.- **Local IP Adr** atalean, idatzi ataka(k) birbideratu nahi ditugun IP estatikoa (PCarena). *(8. irud.)*
- 9.- **Local Start Port atalean**, idatzi birbideratu nahi den atakaren zenbakia, edo, segidako zenbait ataka badira, idatzi haietatik lehena. *(8. irud.)*
- 10.- **Local End Port** atalean, idatzi **Start Port** eremuko zenbaki bera, eta, elkarren segidako zenbait ataka badira, idatzi haietako azkena. *(8. irud.)*
- 11.- External IP eremuan, idatzi 0.0.0.0, eta External Start Port eta External End Port eremuetan, berriz, idatzi Local Start Port eta Local End Port eremuetako balio berak. *(8. irud.)*
- 11.- **Enabled** aukeran, hautatu **On**, eta sakatu **Apply** botoia *(8. irud.)*, egindako aldaketak gordetzeko.



Oharra: ataka bat baino gehiago IP helbide berera bideratzeko, 7. puntura itzuli behar da, eta, Local IP Adr atalean, aurreko konfigurazioko IP helbide bera idatzi.

12/ Euskaltel blogean, [Zyxel VMG8924 B10D bideratzailea](#):

... «Egin al daiteke ftp(21) **atakaren** port forwarding Zyxel VMG8924 B10D bideratzailean?

Bideratzailearen menuaren barruan, NAT aukera hautatu behar da **atakak** kudeatzeko pantailara iristeko. Hor, zenbait aukera ditugu:

Ataka bakar bat irekitzea: Start Port N° eta End Port N° laukietan jarriko dugu ataka. IP Address laukian, **ataka** ireki nahi diogun PCaren IP pribatua jarriko dugu. (Adibide honetan, xxxxxx litzateke)

Ataka-barruti bat irekitzea: 4500 eta 4504 bitarteko **atakak** ireki nahi baditugu, 4500 balioa jarriko dugu Start Port N° aukeran, eta 4504 balioa End Port N° aukeran. IP Address laukian, konfiguratzen ari garen aplikaziorako zerbitzari gisa jardutea nahi dugun PCaren IP pribatua jarriko dugu. (Adibide honetan, xxxxxx litzateke)».